# DROGETEN ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 300. zenbakia. 2021eko maiatza




## Drogetenitturri, 300 zenbaki, makina bat istorio

IRAZABAL
clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

### Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

RPS 173/15

***ARGITARATZAILEA:***

**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***

**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta–kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**

***ERREDAKZIO TALDEA:***

**Alazne Aiestaran,**
**Estibalitz González,**
**Asier Ibaibarriaga,**
**Eneko López,**
**Jon Saez,**
**Libe Solozabal**
**eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

**Alazne Aiestaran.**

***AZALEKO ARGAZKIA:***

**Dorleta Vidal.**

***LAGUNTZAILEAK:***

**Antonio Hernández 'Cuco',**
**Patxi López,**
**Maren Mugarza Ugena**
**eta Valentin Mugarza.**

***ARGAZKIAK:***

**Akerlei,**
**Estibalitz González,**
**Asier Ibaibarriaga,**
**Valentin Mugarza,**
**Miren Samper**
**eta Dorleta Vidal.**
**Urtekariko argazkiak: 200. zenbakitik 299. zenbakira bitarteko argazkietan oinarrituta.**

***PUBLIZITATEA:***

**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**

***INPRIMATEGIA:***

**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***

**Piedi Eizagirre,**
**Ayoub Hdidou**
**eta Olatz Vidal.**

***TIRADA:***

**2.425 ale.**

***ISSN:***

**1133–973X.**

***LEGE GORDAILUA:***

**SS–213/1994.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***


# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: erronda-kantua

## Txikirriki

**(Entzuteko: www.alboka.es)**

Txikirriki txiki-txitxi
ez neri ikutu,
aitxa ganbaran da eta
sentiduko gaitxu.

Aitxa ganbaran da eta
ama sukaldean,
neska-mutilak, barriz,
zirri,
eskilarapian!



# Hilabete honetan…


GURETIK MUNDURA.......4
Miren Samper (Irlanda)

ELKARRIZKETA..............5-7
Ibon Zubiate eta Alberto Belar

ERMUAN ZER? ..............8
Euskal Talent ikuskizuna

DROGETENITTURRIK 300 ZENBAKI...............9-20
200. zenbakitik 300 zenbakira bitarteko albisteen bilduma

MOTZEAN .............21-22
Ermua hiri kardio-babestua

IRITZIA ........................23
*Gazteok ordaindu behar al dugu?*
(Maren Mugarza Ugena)

ANTZINAKOAK............24
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK ......25
Saldu, erosi edo agurtu

EKAINEKO AGENDA ....26



**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
*ERMUA HIRIKO UDALA*

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA




# Miren Samper

**Uda amaieran maletak egin eta Irlandako Clane herrira joan zen au pair bezala. Hilabeteak eman ditu Irlandan Miren Samper ermuarrak, bertako familia baten etxean umeak zaintzen. Maiatzean, Ermura bueltatu berri da.**



***- Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?***

2020ko abuztuaren amaieran joan nintzen Ermutik Irlandara. Nire lehengusina Olatzek bertara joateko proposamena egin zidan, eta egia esan ez nuen birritan pentsatu. Gainera, familia baten etxera joan nintzen, au pair gisa lan egitera, eta banekien horrek esperientzia errazago egingo zuela.

***- Nola imajinatzen zenuen Irlanda? Aurreiritzirik zenuen?***

Aurretik imajinatzen nuen modukoa da: zelai berdeak, inguru natural asko… Baina egia esan, herria uste nuena baino handiagoa da. Onartu behar dut ez nuela aurreiritzirik izan, pentsaera irekiarekin joan nintzen.

***- Zerbaitek jo zizun arreta?***

Gauza batzuk bai, eta beste batzuk ez. Esate baterako, bazkalorduan ez dute hemen moduan bazkari beroa jaten. Sandwichak, fruta eta halakoak jaten dituzte. Dena den, badakit COVID-19aren eraginez, ezin izan dudala ikusi Irlandako benetako bizimodua. Guztiok bezala, bizimodua egungo egoerara moldatu behar izan dute.

***- Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan? Joan aurretik menderatzen zenuen?***

Ingelesez egiten da nagusiki. Baina guk euskara dugun moduan, haiek irlandarra dute. Ingelesari dagokionez, betidanik gustatu zait, eta nahiko ondo menderatzen nuen aurretik ere.

***- Zerbait bota duzu faltan?***

Lagunak eta familia egunero ikustea. Eta herritik gertu bizitzea.

***- Nolakoa zen zure egun arrunt bat?***

COVID-19aren ondorioz, egunean zehar egin nitzakeen ekintzak oso mugatuak zeuden. Irlandan eman dudan denbora gehiena konfinatuta egon gara, eta ibiltzera bakarrik irten gintezkeen. Ibiltzera irteteaz gain, umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten eman dut denbora gehiena.

***- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?***

Gabonetan etorri nintzen, eta bi aste eman nituen hemen. Horrez gain hilabete honetan, maiatzaren 14an zehazki, Ermura bueltatu nintzen, eta momentuz hemen geratzeko asmoa dut, pandemia bukatu arte gutxienez.

Libe Solozabal

san antonio
OKINDEGIA
GOZOTEGIA


Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA
HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ
Garraioak, S.L.
☎ 636 95 83 39 (Julen)




IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



# Mendiak basoberritzeko garaia

"Banda marroia" deritzon gaitzaren ondorioz, azkenetan dago pinuaren nagusitasuna Euskal Herriko mendietan. Gaixotasun hau ez da ezezaguna (1973tik egon da Bizkaiko basoetan), baina berau eragiten duen onddoaren hedapena izugarria izan da 2017tik, eguraldiaren eraginez adituen arabera. 93.147 hektareari egin die kalte EAEn, eta horrek pinudi ugariren mozketa ekarri du.
Gauzak horrela, lur-jabeek beste aukera batzuk bilatu behar izan dituzte: batzuk eukaliptoaren aldeko hautua egin dute (azken 15 urteotan %77 hazi da espezie honen landaketa), eta beste batzuk jasangarriagotzat dituzten alternatiben alde agertu dira.
Azken horien artean daude Ibon Zubiate mallabitarraren sendia eta Alberto Belar zaldibartarra.

# Zubiate-Pagaegi sendia, Mallabian eredu

**San Martin auzoan dago Zubiate-Pagaegi sendiaren baserria. Bertan, pinuz beteriko 3 hektarea bota ostean, hainbat haritz, astigar, lizar, gereziondo, urki, sagarmin eta pago landare sartu dituzte, besteak beste. Aipatzen dute beraiek egindakoa "era naturalean" egin dutela, eta datorren urterako beste 5 hektarea prestatzen ari dira, han ere landareak sartzeko.**



Iazko udazkenean, pandemia garaian, Besaia enpresako Keko Alonsoren laguntza eta aholkularitza jaso zuten. Ibon Zubiatek dioenez, gerora ezagutu dituzte gai honen inguruan informazioa ematen duten Errez Kooperatiba bezalako elkarteak. Dena den, gure inguruotan aitzindari bihurtu da Zubiate-Pagaegi sendia: Azpeititik hasi, eta Eibarreraino eta Oiz magaleraino "kristoren txikizioak" egin dituztela aitortzen du Ibonek: "Leku askotan pinuak bota eta errazkeriagatik ezer landatu ez; edo okerrena, eukaliptoz josi dute ingurua".

Ibonek argi dauka honen guztiaren atzetik interes ekonomikoak daudela. Makina bat irratitan, egunkaritan eta telebistetan adierazpenak egin ostean, "kezkaz" bizi du egoera. "Mehatxuak edo norbaitek kalteren bat egitea", horren kezka ere badaukate. Hala eta guztiz ere, Mallabiko beste baserritarren eta kaletarren babesa eta zoriona ere jaso dute: egin duten hautuagatik eta besteentzat eredugarri izan daitekeelako.

"Pil-pilean dagoen gaia da", aitortzen du Ibonek. Komunikabideetan eta sare sozialetan eguneroko gaia da. Horren harira, zenbait herritan ere sortu dira gai honen inguruan kezka azaldu duten taldeak, tartean Urdaibaiko Kolore Guztietako Basoak plataforma edo Eibarko zein Soraluzeko Baso Biziak elkarteak.

Gai honen inguruan aldundiek daukaten "ardura" nabarmendu nahi du Ibonek: "Hasierako proiektua aurkeztu, eta jasoko den diru laguntza jakinez gero, jende gehiago animatuko litzateke halako inbertsio bat egitera. Lurrak eta guk, denok ateratzen gara irabazle", gaineratzen du.

Zubiate-Pagaegi sendiak argi dauka: "Lurra aberastu eta zaindu beharra daukagu, eta hori guztion lana eta ardura da".

Asier Ibaibarriaga















### Alberto Belar, lur-jabea:

# “Perretxikoak haziko diren ikusteko jakin-mina daukat”

**2013an 3 hektareako lursaila erosi zuen Alberto Belar zaldibartarrak Untzaman. Guztira 1.400 zuhaitz inguru landatu ditu bertan (haritzak gehienak), eta horietako batzuk mikorrizatu ditu perretxikoak hazteko esperantzarekin.**



***- Zergatik erabaki zenuen lur-sail hau erostea?***

Ortutxoa izateko gogoa neukan aspaldidanik, baina ez neukan pentsatuta lur eremu hain handia izatea: hektarea batek bi futbol-zelairen azalera bera du, atera kontuak! 2018an bota nituen bertan zeuden pinuak eta garbiketa lanetan ibili naiz gero.

***- Pinuak kenduta, zer landatu duzu?***

Hektarea batean ortua eta fruta-arbolak ipini nituen, eta beste bietan zuhaitzak landatu ditut aurten. Hainbat espezietako zuhaitzak jartzeko asmoa nuen (haritzak, gaztainondoak, gereziondoak, pagoak eta arteak, besteak beste), perretxikoak hazteko inguru egokia sortzeko. Kontua da diru-laguntzak eskatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar direla, besteak beste ziklo luzeko arbolak ezin direla ziklo ertaina dutenekin nahastu. Azkenean ziklo luzekoak aukeratu ditut, baina 2019an pagoek ez zuten hazirik egin, eta nik sortu ditudan arteak nahiko makal irten dira. Horiek horrela, hauxe da momentuz landatu dudana: 1.356 haritz ale (*Quercus robur* eta *Quercus petraea* espezietakoak), 24 pinazi-pinu (*Pinus pinea*), 20 gaztainondo, 5 pago eta artea batzuk.

***- Espezie horien inguruan perretxikoak hazi ohi dira?***

Perretxikoak sustatzeko, landatutako zuhaitz batzuk mikorrizatu egin ditut. Hau da: sustraietan mizelioa eta perretxikoen esporak bota dizkiet. 400 haritza *Boletus edulis*en esporekin mikorrizatu ditut, baina zuhaitzok 20 bat urte izan behar dituzte gutxienez onddoak hazi ahal izateko. Beraz... itxaron behar! Badaezpada, gaztainondoak ere *Boletus edulis*ekin mikorrizatu ditut (zuhaitzok 6 urte dituztenean onddoak hazi daitezke), pinuak esnegorriekin, eta arteak trufarekin.

***- Egurra saltzeko asmoa ere baduzu?***

Ez, haritzak moztu ahal izateko 80 edo 90 urte izan behar dituzte. Nik ez ditut moztuko, eta espero dut nire atzetik datozenek ere ez moztea.

***- Zer diozu eukaliptoaz?***

Ez zait batere gustatzen, eta ez zait burutik pasatu ere eukaliptoak landatzea. Ez da ona lurrarentzat, suteak areagotzen ditu, eta gainera haren errentagarritasunaren gainean zalantzak ditut.

Dorleta Vidal

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Fernando Urizar Barandiaran
Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

SPARA ARKITEKTURA
ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

# Ermua BHIko ikasleek Euskal Talent ikuskizuna eskaini dute

**Maiatzaren 14an Euskal Talent saioa burutu zen Lobiano Kulturgunean, EusLider proiektuaren barruan. Ermua BHIko DBH 3ko eta DBH 4ko 40 ikasle aritu ziren bertan, epaimahaiaren eta ikusle anitzen aurrean, eta kantu, txiste zein dantzarekin eta kirolarekin lotutako 7 ikuskizunez gozatzeko aukera egon zen.**





Ahize-AEKk bultzatutako EusLider proiektua 2019-2020 ikasturtean heldu zen Ermua BHIra. Egitasmoaren helburua da gazteak modu atseginean eta dibertigarrian hurbiltzea euskararen praktikara, hala nola haren erabileraren inguruan hausnarketa egitea. Proiektuaren lehen zikloko azken faseak agintzen du ikasleek ekintza sozial bat antolatu behar dutela, eta horri erantzuteko Euskal Talent emanaldia burutu zuten maiatzaren 14an Lobianon. Bertan DBH 3ko 27 ikaslek eta DBH 4ko 13 ikaslek parte hartu zuten.

Modan dauden talent showetan egiten den bezala, ikasleak bikoteka, hirunaka edo taldeka igo ziren eszenatokira, eta ikuskizun ezberdinak aurkezten joan ziren epaimahaiaren eta ikusleen aurrean. Saio bakoitza bukatutakoan, lau epaimahaikideek iritzia eman zuten, eta bukaeran hiru finalista aukeratu zituzten. Haien artean Libe Areitioaurtenak eta Lucia Rodriguezek osatzen duten Olilu bikoteak lortu zuen garaipena, *Xalbadorren heriotzean* kanta gitarrarekin jotzeagatik (Libek) eta abesteagatik (Luciak).

**Etxetik zuzenean**

Lobianon hainbat gazte bildu ziren emanaldiaren egunean baina, horrez gain, urrutitik zuzenean ikusteko aukera egon zen streaming bidez (egun ere YouTuben dago ikusgai, “Ermuko Euskal Talent” idatzita).

EusLider proiektuaren Ermuko koordinatzailea den Juanmi Bravoren esanetan, teknikoki lan handia eskatu zuen emanaldia aurrera ateratzeak, baina emaitza positiboa izan da parte-hartzaile guztientzat, hala nola institutuarentzat zein ekimenaren babeslea den Udalarentzat ere. Gainera, “gazteak inplikatu egin ziren, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago, jakina, baina guztien artean proiektua aurrera atera zuten”, adierazi du.

Dorleta Vidal

FEREDU
SOLUTIONS S.L.

* HEZETASUNAK
* ERREHABILITAZIOA
* INPERMEABILIZAZIOAK
* MANTENIMENDUAK
* IGOGAILUAK
* ERREFORMAK
* FATXADAK
* ITE
* TEILATUAK
* GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA




*Txiri-txiri,*

*pausoz pauso,*

*alez ale...*

*aurrera!*

300! Zenbaki potolo distiratsua! 300 hilabetez kale egin barik gaurkotasuna duten edo historia bihurtu diren gertakari eta herritarren berri ematen.

Ibiliaren ibiliaz, errodaje dezente eginda, ez digute kale egin egitasmoan sinesten duten kolaboratzaile ekinok, diruz hornitzen gaituzten erakundeok eta ezta euren publizitatea gurean txertatzen duten bidaia-lagun fidelok.

Ermua eta Mallabiko egunerokotasunaren kronika eginez, kalean jarraitzekoa da gure asmoa, eta kaleratzen segitzeko gogoz oratzen diogu hemendik aurrerakoari ere. Bizkaiko herri-aldizkaririk zaharrena izaten jarraitzeko harrotasunez.

Baina bidean aurrera egin aurretik, azken 100 aleei begiratu bat, hilabete oso bateko bizitasunak argazki bakarrarekin ordezkatzeko asmoz egindako aukeraketa: 10 urteren kronikaren isla izan nahi duten 100 argazki, ehunka herritar.

Drogetenitturritarrok

**1993**



**2007**



**2015**



**2019**



**2021**





Ziriako Ortiz de Zarate herri kiroletako plazetan eta Arrate Irratian esatari lanak uzten zituela iragarri zuen, ez pena txikiarekin.



Rock & Road taldeak bere lehen diskoa plazaratu zuen: Maialen Arrizabalaga saxoan, Danel Ferreño baterian, Asier Uranga baxuan, Asier Cascán gitarran, eta Mikel Sánchez gitarran eta ahotsa.



Leire Uribelarrea, Itsaso Pradera eta Izaskun Zurikarai mallabitarrak Donostiako emakumeen triatloian hartu zuten parte: 300 metro igerian, 8 kilometro bizikletan eta 2 kilometro korrika.



Ermuko *roller* taldearen hastapen eta asmo berriez aritu zen bertako José Luis Arévalo arduraduna.




Ermuko Udal Liburutegia Burgosen burututako Liburutegien VI. Kongresu nazionalean hartu zuen parte, Kultura Ministeriotik "Bertako Bilduma-Colección Local" atala aurkezteko gonbidapena jaso eta gero.



Kristina Palaciosek, Cisjordanian brigadista bezala egon ostean, palestinarren egunerokotasuneko errealitatea hobeto ezagutzeko aukera eskaini zuen.



Amaia Arrondok *Superando los sueños* liburua aurkeztu zuen Lobianon, Miamin kokatutako neska dantzari baten istorioa.











Ermuko Ingurumen Hezkuntza Zerbitzuan 20 urte betetzean, haren sustatzaile izandako Isa Prietok erronka berriez eta ume zein helduengan kontzientzia eragiteaz jardun zuen.



Unai Ramos idazleak *El perfume de África* eleberriaz eta idazten zegoen beste bi lanez jardun zuen.



Euskal Herriko lehena izandako Emakumeen Topalekuak 10. urteurrena ospatu zuen, eta honen harira garai ezberdinetako une garrantzitsuenak ekarri zituzten gogora.



Merche Cuadrado kopla abeslaria, *La Ruiseñora* izeneko diskoa kalean zuela, eszenatokira igo aurretiko prestaketaz eta entzuleen aurrean sentitzen duenaz aritu zen.




Juan Luis Mugarzak, Mallabiko "Juanlo" aguazilak, erretiroa hartu zuen lanbide honetan 33 urte eman ondoren. Ibilbide osoan 1.000 pezetako isun bakarra jarri zuen.



Imanol Alvarezek Donostiako emakumezkoen Bera Beraren gidaritza hartu zuen, ordura arte entrenatutako Eibar Eskubaloi Taldeari agur esan eta gero.



Udalekuak amaitu berritan, Antxitxiketan aisialdi taldeak egindako berrikuntzez eta hurrengo erronkez hitz egin zuten.



Maitane Egidok Panamako Darién oihana zeharkatu zuen 53 herrialdetako 225 gazterekin batera.



Munduko Zesta txapela lehen aldiz irabazi zueneko 50. urteurrenean, Alex Solozabalek bere kirol-ibilbideaz jardun zuen.



Mugarriz-mugarri ibilbidean 200 lagunek hartu zuten parte Ermuko lurralde mugak zeharkatuz.



Lurdes Rodríguez, 42 urtez Mallabian harakina izan ostean, erretiroa hartu aurretxoan zen.








Abeletxe egoitzako langileek, egoiliarrek eta haien senideek Lipdub lehiaketa irabazi zuten, eta Euskalduna Jauregian sairia jaso.



Egoitz Txurruka mallabitarrak ETBko *El conquis* saioan parte hartu ostean, han bizitako abentura kontatu zuen.



Artarrai Mendi taldeak antolatutako IV. Zuhaitz Egunean 300 lagunetik gora batu ziren Joxion, 230 arbola landatzeko asmoz.




Zaida Fernández soziologoak ikerketa lana aurkeztu zuen: *Aztarna feminis-tak eta emakumeen aztarnak: gure borrokaren oroimena.*




Ermuko euskararen aditz-taulen libu-ruxka argitaratu zuen Badihardugu Euskera Elkartiak, Ermua eta Eitzagako euskara liburuan oinarritu-ta.



Sutegi Txikia taldeak Buero Antzerki Gaztea lehiaketako lehen saria esku-ratu zuen, erkidego desberdinetako 44 talderekin lehiatu ostean.



Bea Gonzálezek ilustrazio koloretsuz eta fantasiazko ipuinez osatutako *Reflections* liburua aurkeztu zuen Bartzelonako XXXII. Nazioarteko Komiki Erakusketan.



Karmele Gisasola mallabitarrak, herri-kiroletako ingude-altxatze modalitatean Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan bigarren postua esku-ratu zuen.



Elena Roldán mezzosopranoa bere ibilbide musikalaz eta kanturako zaletasunaz aritu zen.



San Martin Azokaren XXV. edizioa ospatu zen eta, eguraldi ezin hobea lagun, herriko kaleak jendez eta pla-zak ortuariz zein animaliaz bete ziren.




Sonia Souto, CityMap aplikazioaren sortzailea, YUZZ programa irabazi eta sari bezala Silicon Valleyra joateko aukera izan zuen.










Esther Astarloa zeramistak, Debako Arte Eskolan irakasle, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko *Zeramika Hiztegia*ren sormenean hartu zuen parte.


Jesika Martinez-Alcocerrek, arte diziplina anitzetan aritu ostean, arropa diseinatzeari ekin zion serigrafia teknika erabiliz.


Izaro Andrés abeslari mallabitarra, musikaren munduan hasi berritan baina asteburuoro eszenatoki ezberdin baten gainean zela, bere ametsa betetzen jarraitzeko bidean zen.


Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak 40 urte bete zituen eta, dantza-emanaldiez gain, hainbat ekintza egin zituzten.


Andoni Rodelgo eta Alice Gofart bidaiariek *El mundo en bicicleta. 7 años viajando por el globo* liburua aurkeztu zuten.


Alaia Arroyo arkitektura ikasleak Merkatu Plaza gazteei zuzendutako gune bilakatuko lukeen proiektua aurkeztu zuen.


Cerebral Effusion taldeak, "brutal death" estiloko musika eginez, Amerikako Estatu Batuetan 13 kontzertu eman zituen 13 egunetan.


Javi Crespok, Ondarroako institutuko ikasleekin batera, antena parabolikoak sukalde bihurtu eta Urko Punta GKEren bitartez Malira bidali zituzten.


Mallabiko Urriko jaietan jende ugari eta giro ezin hobea topatu zuten hiru egunez programatutako ekitaldi desberdinetara hurbildutakoek.


Euskararen Eguneko jardueren artean Euskal Birusak, Antxitxiketan-ek eta AEK-k 100 kriseilu piztu eta aireratu zituzten.


Itsaso Pradera mallabitarrak, herriko nesken paleta eskolako arduradunak, gazteen artean gero eta zaletasun handiagoa duen kirol horretaz hitz egin zuen.





Garazi Mugarza mallabitarrak *Lekore* magazina sortu zuen beste 7 idazlerekin batera.



Motor txikien hainbat lasterketetan parte hartu ostean, DMT taldeak fitxatu zuen Erlantz Díez.



Danel Ferreño mallabitarrak, Stai Zitto eta Hesian taldeetako bateria joleak, azken hauekin "40 minutu rock" jaialdian jo zuen 8.000 lagunen aurrean.




Irulitxa Fanfarreak 20 urte bete zituen kaleak musikarekin girotzen.



Lehenengo pilotari eta gero 41 urtez artekari izan ostean, Juan Luis Arrartek, " Pola", agur esan zien frontoiko lan guztiei.



Euskaltzaleen Sareak antolatutako "Ermuan Bagara" ekitaldia jendetsua eta arrakastatsua izan zen, 12 ordu eta erdi euskaraz aritzeko erronkari eutsiz.



Hainbat margotze eta marrazte tekniketan trebatu ondoren, Eneritz Murillo Bic boligrafoa erabiltzen hasi zen bere margolanak egiteko.



Anne Erauskinek Espainiako Eskubaloi Selekzioarekin jokatzeko aukera izan zuen emakumezkoen mundialean.



Mallabiko Berbalagun egitasmoa beste urte batez jarri zuten abian, asteroko hitzorduaz gain, hainbat proposamen eta ekitaldiz jantzita.



Gorbeia, Anboto eta Aizkorri zeharkatu eta 100 kilometro dituen Hiru Handiak mendi lasterketan 17 ermuarrek parte hartu zuten, horietatik 4 emakumeak.



*Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek* liburua aurkeztu zuten Pello Mugarzak eta Jesus Mari Uribelarreak Mallabiko Kontzejuzarrean.

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es




Aitor Elordik lehenengo urtea eman zuen esku-pilota profesionalean.


Atletismo Federazioak ontzat eman zuen Iñigo Ugenak abenduan lortu zuen 4 metroko errekorra.


Ana Ugarte Atenaseko errefuxiatuei ilea mozten aritu zen, Tijeras Solidarias GKEarekin batera.


Gauetan, era akustikoan eta inolako konpromisorik gabe jaio zen 4 urte lehenago Versionarios taldea.


June Hernández gazteak hiru urte egin zituen Eibar Futbol Taldeko atezain gisa.


Monica Cidek, Eroski Taldeko Kalitate saileko koordinatzaileak, elikadura-ren inguruan dauden mitoak argitu zituen.


Txabi Arnal idazle ermuarrak 4 liburu argitaratu zituen 8 hilabetetan, eta beste 6 zituen bidean.


25 urte zituen Leire Montoya ermua-rrak Ironman txapelketan parte hartu zuen Vichyn (Frantzia).


Irene Pérez atleta eta modeloak Ion Fiz ermuarraren jantziekin desfilatu zuen Guggenheim museoan.


Ermuko Mikologiaren Lagunak elkar-teak 30 urte bete zituen, eta horren berri eman zuen Riki G. Izarrak.


Giro apartan burutu zen abenduaren 3an Euskararen Eguna: hurrengo urtean gauzatuko zen Euskaraldiaren 1. ediziorako martxa hartzen hasi ziren herrita-rrak.





Amaia Araiztegi pilotari mallabitarrak munduko txapelketa irabazi zuen Kolonbian, One Wall disziplinan.




Urdaibai Bird Center sortu zuen biologo ermuarrak, Edorta Unamunok, zentroaren hastapenetaz jardun zuen.



Jasone Osoro idazleak irabazi zuen Ermuko Ezekiel Etxeberria Literatur Sariaren X. edizioa.



June, Markel, Hugo eta Aiur gaztetxoek motorrean zeharkatzen zituzten mendiak, Eitzaga Xtrem taldearekin.



Jokin Azpiazu Carballo soziologo eta aktibista ermuarrak *Masculinidades y feminismo* liburuan oinarritutako hausnarketa egin zuen.



Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak Ermuan duen batzordeak 20 urte bete zituen.



Felix Moreno ermuarrak 5 urte bete zituen Urkiolako Abadetxearen zaindari bezala.



Jon Gisasola "Zelai V" harri-jasotzaile mallabitarrak Euskal Pentatloian parte hartu zuen.

## Tasio eta Sabino



Drogetenitturri aldizkariko 300 zenbakiak



Anaitasuna Ikastolak 50 urte bete zituen, eta Olatz Olaizolak, Begoña Aginagak eta Maria Jesus Aranburuk hasierako urteak gogora ekarri zituzten.



Euskaraldiaren lehen edizioa burutu zen, eta 948 lagunek eman zuten izena Ermuan: 605 *ahobizi* eta 343 *belarriprest*.



Ehundaka lagun bildu ziren sortzaile oparoa izan zen Markos Gimeno Vesgari agur esateko.

20
21

MAÑEKO TERRAZAREN

# URTE URRENA

GARAGARDO BERRIA

**DOHAiNiK !**

# MUSIKA

MAIATZAK 29,

17:00-ETATIK - 19:00-TARA

ETORRI ETA GOZATU!

Mañeko
Etxeko Janariak



Berdintasunaren aldeko Zipriztintzen taldeak 10 urte bete zituen.



Nahia Rojo sexologoak haurtzaroaz eta transexualitateaz hitz egin zuen, Zoe Centeno eta Naroa Rodríguez ermuarrrekin batera.



Feminismoaren aurpegi ezaguna den Anabel Sanzek Ermuan hartu zuen justizia sozialarekiko konpromisoa.



Andoni Isusi ermuarrak eta bere txakur Baltok Txakur Kroseko Espainiako txapelketa irabazi zuten.





Miguel Goikoetxea ermuarra eta Iraitz Udabe eta Eider Gisasola mallabitarrak erlezaintzan zebiltzan, helburu eta teknika ezberdinak erabilita.




Andoni Perez eta Roberto Vega sukaldariek txapelketa ezberdinak irabazi zituzten eurek sortutako mokaduekin.



Asier Madarieta geologoak urtebete eman zuen Kanariar Uharteetako Institutu Bulkanologikoan.



Mirene eta Arantza Moreno ahizpak kirolaren elitean zebiltzan: eskubaloian eta xabalina-jaurtiketan hurrenez hurren.



Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak mende erdi bete zituen.



Euskal Birusak antolatutako San Martin azokak 30 urte bete zituen, eta aldizkarian jasota daude eguneko argazkiak.



Mallabian bizi den Asier Tejadok Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazi zituen car crossean, slalom modalitatean.

ileapaindegia
Silvia
peluquería
Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00
943 170474
688819336

TXALAPARTA TABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13
(Ermua)
ENKARGUAK
943 030 299

Aurrematrikulatzeko moduak:
+ Presentziala: etorri zaitez!
+ Web bidez: www.uni.eus
+ Ikasgunean



# AURRE MATRIKULA

## MAIATZAREN 31tik EKAINAREN 18ra

LANBIDE HEZIKETA 2021-22

**ESKAINTZA** OFERTA

- MERKATARITZA JARDUERAK
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA (BERRIA)
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

*+ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA PARTZIALA ARRATSALDEZ*

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ESPEZIALIZAZIOA

* IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA
*CENTRO PÚBLICO GRATUITO*

Otaola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus
@uni.eus

UNI EIBAR ERMUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## 2020



Ermua Harrera taldea: migratzaileei harrera egin eta gizarte eta lan integrazioa bultzatzen duen erakunde txikia.



Zaldibarko zabortegiaren hondamendia gertatu zen.



Miren Edurne Elejondok Ermuko emakumezkoen lehen futbol taldearen memoriak kontatu zituen.



Lucia Cano eta bere familiak Txinara bueltatzeko aukera galdu zuten koronabirusaren eraginez.



Gurutze Gorriaren lan karga handitu egin zen pandemian, eta hogeita hamar boluntario baino gehiago batu ziren taldera.




Lesionatuta harrapatu zuen pandemiak Peio Goikoetxea txirrindularia. Errepidera bueltatu zenean, aske sentitu zen.



Valentin Mugarza basogintzako teknikariak Mallabiko Berano auzoan dauden zuhaitz motzen historia azaldu zuen.



Juan Antonio Izagirre ermuarra elizako kanpandorretik kendutako bi erloju konpontzen ari zen.



Juankar Andres blogariak naturarekin duen konpromisoari buruz hitz egin zuen.




Ermuko ostalariek hainbat mobilizazio antolatu zituzten COVID-19aren eraginez instituzioek ezarritako itxialdia eta baldintzak salatzeko, hala nola diru-laguntzak eskatzeko.



Irune Astarloa mallabitarrak bizitza modu kontzienteagoan bizi du yogaren mundura hurbildu zenetik .

## 2021



Oier Araiztegi, Danel O´Callaghan eta Julen Olaya surflariak: inguruko hondartzetan olatuekin gozatzen eta urrunekoekin amesten.



Mallabian bizi diren Idurre Galarraga, Estitxu Imaz eta Estibalitz Katarain idiazabaltarrak hangoaz eta hemengoaz aritu ziren.



Eztitxu Larrea bere ikusmen faltagatik egunerokotasunean dituen mugaz eta bere buruari jartzen dizkion erronketaz jardun zuen.



Jasone Salaberriak, euskalkietan aditua izandako hizkuntzalari, idazle, irakasle eta ikerlariak, agur esan zigun.

# Udalak Drogeten itturria txukundu eta seinaleztatu du




Ermuko eta Mallabiko herri aldizkariaren 300. alearen kaleratzea aitzakia hartuta, hilabetekariari izena eman eta bi udalerrien arteko mugetatik gertu dagoen iturria txukundu du Ermuko Udalak. Ingurumen saila arduratu da lanez eta, iturria bera garbitzeaz gain, bertara jaisteko harmailak gogortu eta heziak ipini ditu eskaileron ondoan, sarbidea errazteko. Iturriaren kokapena adierazten ere seinale bat ipini dute.

# Akerlei akademiak FECEI Top saria jaso du



Ermuko Akerlei Akademiak maiatzean jaso du Hizkuntzen Irakaskuntzarako Zentroen Espainiako Federazioak (FECEIk) urtero ematen dituen sarietako bat: Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren atalean, hain zuzen ere. Akademiako arduraduna den Ana Mallabiabarrenaren esanetan, 2020ko azaroan hasi ziren prestaketa lanetan, Elhuyarrek eta Ermuko Udalak sustatzen duten “Otsailaren 11 Erakusleihoak” egitasmoan izena eman eta gero. Egitasmoaren helburua da neskek zientzia- eta teknologia-gaietan parte hartzea, eta horretarako emakume zientzialarien lana balioan jarri eta bistaratzen du, erreferenteak sortzeko. “Nettie Stevensen lana bistaratzea egokitu zitzaigun guri, kromosomek sexua determinatzen dutela aurkitu zuen zientzialariarena, alegia”, azaldu du Mallabiabarrenak. Hori dela-eta, haren bizitzaren inguruko erakusketa egin zuten zentroan, eta haren gailuen erreplikak eskuz egin zituzten. Proiektu hori bukatutakoan, FECEIk antolatutako sarietan izena ematea bururatu zitzaien, “irabazteko esperantza barik”, onartu du Anak. Baina, maiatzaren 7an jakinarazi zieten irabazleak zirela. “Ezin genuen sinetsi! Lan handia egin dugu, baina oso proiektu pozgarria izan da —azaldu dute Akerleitik—. Langile guztiok asko inplikatu gara, bereziki Silvia Barrasa, Mónica Sánchez eta Marijo Uzquiza, eta baita ikasleak ere”.

## ALBOKA MUSIKA ESKOLAK MATRIKULA EPEA ZABALDUKO DU

Ekainaren 1ean hasiko da Alboka Musika Eskolako izen-emate epea, eta ekaina guztian zabalik egongo da. Hauek dira datorren ikasturtean martxan egongo diren klaseak: musika tailerra (5-6 urteko umeentzat), hizkuntza musikala, biolina, biolontxeloa, flauta, gitarra (klasikoa, elektrika eta baxua), klarinetea, perkusioa (bateria eta marinba), pianoa, saxofoia, trikitixa eta panderoa, tronboia, tronpeta, eta hainbat talde: banda, abesbatza eta bestelako konboak. Informazio gehiago jasotzeko, eskolako webgunera jo daiteke (www.alboka.es) edo telefonoz deitu (943 17 12 98); matrikula-inprimakia eskolara bertara eraman beharko da (Goienkaleko 2. zenbakira), edo e-mailez helarazi helbide honetara: albokamusikaeskola@hotmail.com.

## CRISTIAN RODRIGUEZ ERMUARRAREN ENPRESAK SARIA JASO DU FITURREN

Fiturrek eta *Aire Libre* aldizkariak antolatutako Turismo Aktiboko XXVI. Sarietan, Cristian Rodríguez ermuarrak sortutako Inguru Abentura enpresak jaso du saria. Arabako La Leze arroilaren jaitsiera da zehatz mehatz Fiturrek nabarmendu duen jarduera.












## ONGARAI ESKOLAKO GURASOLAGUNEK EGUZKI-LABEAN EGINDAKO BIZKOTXOA JAN ZUTEN

Maiatzaren 20an Ongarai auzoko skate parkean bildu ziren Ongarai Eskolako 15 gurasolagun inguru. Eguraldi bikaina egiten zuela aprobetxatuta, bizkotxo bat prestatu eta eguzki-labean kozinatu zuten, Javi Crespo ermuarraren laguntzarekin. Irakasle honek 2015eko irailean azaldu zuen *Drogetenitturri* aldizkarian nola lortu zuen antena paraboliko zaharrak sukalde bihurtzea, eta bere aurkikuntzak emaitza onak ematen dituela ikusteko aukera izan zuten Ongarain bildutakoek. Izan ere, emaitza “sinestezina” dela esan zuten lagunok. Bestalde, “Jokogunea” burutuko da Ermuko plazan maiatzaren 28an, ostirala, 18:00etan, Berbalagun egitasmoaren barruan ere. Tabu, Auskalo (Trivial-a), Ezagutu Euskal Herria eta Monopoly jokoetara euskaraz jolasteko aukera egongo da, euskara modu dibertigarrian erabiltzeko parada eskainita. Parte hartu nahi dutenek aldez aurretik eman beharko dute izena ermua_berba@aek.eus helbidera mezua bidalita.



# Ermua herri kardio-babestua izango da ekimen berri bati esker



Ermuko Udalaren eta Bexen Cardio enpresaren arteko elkarlanari esker, 10 desfibriladore jarriko dira Ermuan datozen asteotan, eta 150 lagun inguru trebatuko dira gailu horiek erabiltzen. Desfibriladore eta erreskatatzaileei esker, Ermua herri seguruagoa izango da, Udalaren webgunean irakurri daitekeenez. Alde batetik, ekainaren 15etik aurrera 10 desfibriladore jarriko dira herriko kale ezberdinetan, Bexen Cardioko arduraduna den Argi Osak azaldu duen bezala, eta horrela 22 desfibriladore egongo dira herrian guztira. Izan ere, gaur egun 12 desfribiladore daude jadanik Ermuko hainbat saltokitan eta eraikin publikotan. Erreskatatzaileen trebakuntzari dagokionez, Bexen Cardiok hainbat formakuntza-saio prestatu ditu, eta formazio hura jasotzeko interesa dutenentzako izena emateko epea zabaldu zuen duela aste batzuk. Zearreko buelta eraikinean kokatutako enpresa honek aurreikusi du proiektuak arrakasta izateko 150 lagunek jaso behar dutela formazioa, eta aldizkaria inprentara bidali orduko, 113 herritar eta 30 udal langile apuntatuta zeuden. Trebakuntza saiook 3 orduko iraupena dute, Izarra Centren burutzen dira eta doakoak dira. Osak azaldu duenez, ekainaren 1ean, 3an eta 4an plaza gutxi batzuk geratzen dira oraindik, eta izena eman nahi dutenek, beheko QR kodigoa eskaneatu dezakete edo www.bexencardio.com/es webgunean sartu, Cardio-proteccion atalera joan, eta Ermua botoian sakatu. “Zenbat eta jende gehiagok izena eman, orduan eta zentzu handiagoa dauka proiektu honek —adierazi du Osak—. Desfibriladoreak kalean egongo dira, eta behar duen edonork erabil ditzake, baina guretzat garrantzitsua da jendeak formazioa jasotzea”. Helburu hori lortzeko sentsibilizazio kanpaina egiten dihardu Bexen Cardiok, eta kanpaina horren ordezkariak dira BM Zuazoko Anne Erauskin eta Super Amara Bera Berako Mirene Moreno eskubaloilariak. Proiektu honek 14.950 euroko aurrekontua du (prestakuntza, desfibriladoreen eta panelen instalazioa, eta 4 urterako mantentze eta instalazioarekin lotutako zerbitzu guztiak barne).

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKA · CLÍNICA DENTAL
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264
· P.A.D.I
· IMQ
· SANITAS
· DENTYRED
· AZKARAN
· OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak…
…prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# Gazteok ordaindu behar al dugu?

Nire bizitzak bira bat eman zuen normaltzat nituen gauzak, niretzat normal izateari utzi ziotenean. Gure arbasoek bizitza umila izan zuten, beharrezkoarekin eta nahierarik izateko aukerarik gabe. Gurean, beharrezkoak diren gauza asko kapritxo bihurtu dituzte.

Eta noiz hasten gara bizitzeko behar ditugun gauzak hala edo hola eskuratzen? Gaztaroan. Gaztaroa da nire oraina, baina baita ere iragana eta etorkizunaren arteko zubia, non subjektu autonomo moduan bizitzeko behar ditugun gauzak "lortzen ditugun": lana, etxebizitza, sare afektiboak… eta zorionekoren batek agian bere nahieren bat ere. Gaztaroa da izaki dependente izatetik izaki autonomo eta independente izatera eramaten gaituen trena.

Baina ez da zubi hutsa; orainaldian ematen den errealitate zehatz eta hautemangarria da, zubi hori eraikitzeko trabaz betea dagoena.

Zer da orduan gazte izatea?

Gazte izatea ikasketak amaitu eta lan aukerarik ez duzulako, gehiago ikasi behar izatea da. Bigarren ikasketa horiek ordaintzeko, baldintza okerreko lan batetik bestera saltoka ibili behar izatea: eskola partikularrak, ostalaritza, banaketak, begirale lana… Gazte izatea langabezia pairatzea da. Prekarietatea. Etxetik alde egin nahi izatea eta ezin. Atzerrira joan behar izatea. Eta gure iritziak plazaratzerakoan "oraindik gaztea zara" edo "nagusitzen zarenean ulertuko duzu" entzun behar izatea. Gaztea izatea kriminalizazioa pairatzea ere bada. Gure errealitatea salatzeko borroka ezereztea.

Heldu nahi gaituzte, baina ez digute zubia eraikitzen uzten. Sistema honen jo puntuan gaude gazteok. Kapitalismoak eragiten dituen krisi guztien itua gara.



Maren Mugarza Ugena

COVID-19a heldu zenetik, krisi guzti hauek modu nabarmenean mahaigaineratu dira, egoerak okerrera egin baitu, eta honekin batera gazteriaren egoera are jasangaitzago bihurtu da. Normaltasun berriaz hitz egiten dute, baina nik ez dut normaltasunik ikusten. Nire bizitzak bira bat eman zuen bezala, espero dut, gainontzeko gazteen bizitzek ere bira handi bat ematea. Normaltasun ziztrin hau desnormalizatuko duen bira erraldoia. Izaki independente izaten lagunduko gaituen zubi hori eraikitzeko baldintzak behar ditugu gazteok, baina gaurko orainean, are gaitzago daukagu. "Guk ordaindu behar al dugu hau guztia?", galdetzen diot nire buruari. Erantzuna argi daukat: gazteok ez dugu ordainduko.

> "Gurean, beharrezkoak diren gauza asko kapritxo bihurtu dituzte"

ITZE
OPTIKA
AUDIO
Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia
Probaleku, 7
Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

URRETA
burdindenda
✖ Etxea
✖ Giltzak
✖ Tresneria
✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea
✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8
Tel: 943 17 65 61
ERMUA

## MALLABIA
# 1959



1959ko azaroaren 26an ezkontza burutu zen Mallabiko elizan. Abendibarko Jesusa Urkidi Aransolo eta Justo Antxia Arrate bertan ezkondu ziren.

**ZUZENKETA:**
Apirileko argazkian jarri genuen Asier Garitagoitia agertzen zala, baina Asier baizik Oier Madariaga zen.



## ERMUA
# 1898



Alejandro Aranburu Ormaetxea, "Droget" ezizenez ezagunagoa eta sortu zuen iturriarekin batera aldizkariari izena ematen diona, bere guraso eta arrebez inguratuta: tente, ezkerretik eskumara, Petra, Emilia eta Segunda; erdian aitamak, Laureano eta Modesta, eta txakurtxoaren ondoan etxeko gaztena, Alejandro. Pilotaria, enpresa-gizona, abenturazalea, ekintzailea… Mexikora alde eta urte batzuk Pantxo Villarekin egon zen "hasiendo la revolusión". Bertan ikasi zuen erdera eta mexikar azentuarekin egiten zuen egin ere; Ermuan eraiki zuen etxeari "Rancho" izena jarriko zion.

* Ermuko edo Mallabiko argazki zaharrak badituzu, eta atal honetan argitaratzea nahi baduzu, bidali drogeten@gmail.com helbidera, edo ekarri gure bulegora: Erdikokale zeharbidea 2, 1. pisua (estankoaren gainean). Eskaneatu eta momentuan eraman ahal izango duzu. Argazkiok 25 urte izan behar dituzte gutxienez.







## LAN BILA

Ermuko neska gazte euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. 14:30etik aurrera. Oporretan egun osoz.
✆ 648 62 52 09

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
✆ 681 31 09 89.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
✆ 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
✆ 632 41 53 74.



Maiatzaren 14an
Zorionak Eider. 3 urte jadanik. Segi horrelakoa izaten. Mila muxu familia guztiaren partez. Gora gure matraka!!!



Ekainaren 9an
Zorionak Oihane!! Oso ondo pasatu zure 4. urtebetetzean. Muxu asko Ander, ama eta aitatxoren partez.



Maiatzaren 31n
Zorionak Katixa!Bi urte! Jarraittu oin arte moduen, bizipoz horrekin! Matte zaittugu!



Ekainaren 5ean
Zorionak izaro!! 13 urte beteko dituzu!! Asko maite zaitugu! Eder, aita eta amaren partez.



Maiatzaren 20an
Zorionak Javi eta Manolo. Ondo pasa zuen urtebetetzean. Jarraitu mendi gailurretara joaten. Muxu asko.



Maiatzaren 10ean
Zorionak familia guztiaren partez. Eta muxu asko Martin eta Oierren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua helbide honetara:

**drogeten@gmail.com**

Azken eguna: **Ekainaren 16a.**















**Hilaren 1etik 13ra**
*Margo erakusketa: Udal Margo Eskolako ikasleen lanak.*
*18:00etatik 20:00etara*
*Lobiano kulturgunean.*

**Hilaren 4an**
*Zirko ikuskizuna: "Nudo", Rojo Telón konpainiaren eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 5ean**
*Umeentzako ikuskizuna: "Gora kasette", Eidabe konpainiaren eskutik. Sarrera dohainik.*
*12:30ean. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 5ean**
*Bertso jaialdia: Irune Basagoiti, Ibai Amillategi, Urko Arregi, Nahia Ibarzabal, Iruri Altzerreka eta Gorka Pagonabarraga. Gai jartzaile: Asier Ibaibarriaga. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 6an**
*Soul, rythm & blues, funk… kontzertua. I feel good taldearen eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 11n**
*Kale Antzerkia: "Al otro lado", Zanguango Teatroaren eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 12an**
*Umeentzako ikuskizuna: "Petitxou", Gari, Montxo eta Joselontxo. Sarrera doan.*
*12:30ean. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 12an**
*Kontzertua: Malvaloca emakumeen abesbatza. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 13an**
*Haize zabaleko margo lehiaketa*
*9:00etatik aurrera. Herriko kaleetan.*

**Hilaren 13an**
*Flamenkoa: Ráfagas", La Pulga y Compañíaren eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 18an**
*Clown ikuskizuna: "Cabaret Panoli", Ganso y Cíaren eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 19an**
*"Diberti-dantza", Deabru beltzak taldearen eskutik. Sarrera doan.*
*12:30ean. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 19an**
*Afrosweet kontzertua: Hafa taldearen eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 20an**
*Kontzertua: Los 5 bilbaínos taldearen eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 25ean**
*Clown ikuskizuna: "Filamento el farolero", Xabi Larrearen eskutik. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 26an**
*Umeentzako ikuskizuna: "Bart non ote nintzen ni?", Txirri, Mirri eta Txiribitonen eskutik. Sarrera doan.*
*12:30ean. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 26an**
*Kontzertua: Alboka Musika eskolako banda. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

**Hilaren 27an**
*Kontzertua: Demode Quartet. Sarrera doan.*
*19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.*

***Patxi López***

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 • albokamusikaeskola@hotmail.com




# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

## Matrikula zabalik

**UDAKO IKASTARO TRINKOA**
Ekainaren 21etik
uztailaren 16ra

**Egunean 4 ordu**
**(guztira 80 ordu)**

**MATRIKULA ZABALIK**
Ekainaren 15era arte

**AZTERKETA OFIZIALAK**
**URRIAN**

**BEKAK / Langabetuek erdia**

| MAILAK | | |
|---|---|---|
| **B1** (1. maila) | **B2** (2. maila) | **C1** (3. maila) |

• • • • • •

**INFORMAZIOA TELEFONOZ**
**EDO EMAILEZ**
**9:00-13:00 eta 17:00-20:00**

**ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA**
Teresa Murga Eraikina
Goienkale, z/g 2. Solairua
Tf.: 943 17 09 25
euskaltegia@udalermua.net

## AEKn, UDA BATEK BIK BESTE BALIO DU

Euskara ikasi eta gozatu egingo duzu

aek
euskara praktikoa




Maitane Cereceda Hernández, AEK-ko ikaslea.

# Ermuko Kaltxango AEK

## IKASTARO TRINKOAK

### EKAINA | UZTAILA | IRAILA

Ekainaren 24tik uztailaren 21era (80 ordu)

Irailaren 2tik 29ra (80 ordu)

Irailaren 15etik 28ra (30ordu)
Ikasturtean zehar ibilitako ikasleentzat

**Izena emateko azken eguna: ekainaren 15a**

4 orduko ikastaroak
Goizez zein arratsaldez
Diruz lagunduak

Covid-19a dela eta, ikasle kopuru mugatua; eman izena lehenbailehen

Zearkale 16 | **943 17 19 40 · 688 746 480 | kaltxango@aek.eus**

**EUSKALTEGIAK**

**Ikastaro trinkoak** · Cursos intensivos
**Etxe ondoan** · Cerca de casa
**Euskara ikasteko** · Azterketak prestatzeko

**ONLINE IKASTAROAK**

**A1, A2, B1, B2, C1, C2**

**2 ASTEKO BARNETEGIAK**

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko

Espazio segurua

**www.aek.eus**
**673 200 100 / 946 464 000**